

**GERNIKAKO SANTA KLARA MONASTERIORA BISITA  
VISITA AL MONASTERIO DE SANTA CLARA DE GERNIKA**

2024-04-26 Gernika 26-04-2024

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Bilboko Gotzaia, Lagunarteko ama federala eta ama aagusia, komisadun pontifizioa, mojak, Gernikako parrokoa, Bizkaiko Ahaldun Nagusia, Bizkaiko Batzar Nagusietako burua, Gernikako alkate jauna, sailburuok, herri agintari eta ordezkariok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko deialdiari erantzuteagatik eta gaur gurekin batera hemen izateagatik.

Apirilak 26 ditu gaur eta Gernikan gara, 1937an gaur bezalako egun batez gertatutako bonbardaketa gogoan dugula.

Egun hartan izandako txikizioa eta mina ekarriko ditugu gogora eta egunean zehar izango diren ekitaldi ezberdinetan memoria ariketa bat egingo dugu, bizitza, familia, lagunak, etxebizitza edo ondarea galdu zutenen sufrimendua gogoratzeko eta haiekiko erabateko elkartasuna adierazteko.

Bonbardaketaren ondoren zutik eta osorik geratu zen gune batean gaude.

Eskola zaharrak, pasealekua, Andra Mari parrokia, Batzar Etxea, eta Klarisen Komentuak osatzen duten gune hau izan zen Gernikaren bonbardaketan suntsitu gabe geratu zen inguru bakanetako bat.

Gune garrantzitsua da, dudarik gabe. Historiaz eta esanahiez betea.

Gernikako arbolaz hitz egiten digu, euskal lurraldeen foru-tradizioaz, autogobernuaz, askatasunaz, faxismoaz, indarkeriaz, gudaz eta bakeaz, kulturaz, tradizioaz eta espiritualitateaz...

Antzinako herri-ordezkariek Foruen eta arbolaren gerizpean erabakiak hartzen zituzten gune hau aukeratu zuten San Frantziskoren ordenako moja klarisek euren etxea sortzeko duela mende batzuk.

Jakina den bezala, duela gutxi utzi dute, ia bostehun urtez bertan izan ondoren, munduan gertatzen ari diren gizarte-aldaketa sakonen ondorioz.

Gaurko bilkura honen bitartez jakinarazi nahi dizuegu akordio batera iritsi garela Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko eliza Klarisen ordenari moja-etxea erosteko.

El motivo de esta comparecencia es sencillo: queremos comunicaros que hemos llegado a un acuerdo para la compra de este convento.

A la vista de la importancia que tiene este lugar, hemos decidido que es justo y oportuno comprar el convento, la iglesia y el terreno que hay en la parte posterior y convertirlo en un espacio vinculado a la memoria.

Nos ha parecido la mejor manera de proteger este lugar tan importante para nuestra historia.

Nuestro objetivo es dar un nuevo impulso al museo de la Paz ubicado en Gernika. Pensamos que este convento puede ser el mejor lugar para ello.

Queremos aprovechar, además, la oportunidad que nos brinda el hecho de que toda Gernika haya sido declarada zona de memoria.

Esto nos abre la puerta a formar una red junto a otras ciudades que han sido también víctimas de bombardeos indiscriminados en todo el mundo.

Bestetik, Busturialdea eta Urdaibai indartzeko euskal erakundeek sustatu nahi dugun plangintza estrategikoaren barruan, nahi genuke Jaurlaritzak egin dezakeen ekarpenetako bat izatea Bakearen museoarena.

Gure ustez, museoaren duintasuna eta erakargarritasuna indartzeko modurik egokiena da inguru honetara ekartzea, horretarako egin behar diren zaharberritze, moldaketa eta beharrezko inbertsioak eginda.

Hori da gure nahia eta horixe da gaur aurkezten dizuegun erabakiaren esanahia eta helburua.

Eskerrik asko guztioi!